

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalak lurrazpiko aparkalekuak kudeatzeko Empark enpresarekin duen pleguen baldintzak direla eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko hilabeteetan Emparkek kudeatzen dituen bi aparkaleku, Easokoa eta Katalunia Plazakoa, albiste izan dira bertan emandako sexu-erasoak direla eta.

Eraso hauek agerian utzi dute aparkaleku hauek kudeatzen dituen Empark enpresak zer nolako baldintzak betetzen dituen kudeatzen dituen aparkaleku guztietan eta Donostiako Udalak ezarritako baldintza-pleguetako neurriak betetzen ote dituen ala ez.

Emparkeko langileen lan baldintzak kaxkarrak direla jakin ahal izan dugu haien eskutik, eta enpresak, pleguetan bete behar dituen baldintzetako batzuk ez dituela betetzen. Langileek esan digutenaren arabera, honen guztiaren berri eman zioten Mugikortasun zinegotzi arduradunari iazko irailean. Zinegotzia jakinaren gainean jarri zuten, besteak beste; enpresarekin, segurtasunarekin, garbiketarekin, mantenuarekin edo pertsonal kontuetan dituzten arazoak.

Udal Gobernuaren erantzunik edo baldintza horiei buruz erantzunik jaso ez zutenez, berriro, otsailean jarri ziren harremanetan Mugikortasun zinegotzi ordezkariarekin, baina egun oraindik ez dute inongo erantzunik jaso.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Honi guztiari buruz galdetu genion zinegotzi ordezkariari eta ugariak izan ziren hark emandako erantzunak.

Zinegotzi arduradunak adierazi zuenez, Empark enpresak, segurtasun-enpresa bat du kontratatua 2023tik. Hortaz, aipatu zuen, parkingek segurtasuna dutela 24 orduetan eta gaueko zaintzak egiten direla ere. Lurrazpiko aparkalekuek bestelako segurtasun-sistemak dituztela ere kontatu zigun, hala nola: kamerak, panikoaren aurkako botoia eta sarbide-kontrola oinezkoentzat. Orokorrean, enpresak pleguen baldintzetan ezarritakoa betetzen duela zaintzen duela udalak ziurtatu zuen eta ez-betetzereen bat ikusten bada, egoera konpontzera behartuko duela enpresa.

Udal Gobernuak hori guztia kontatu arren, pleguetako baldintza batzuk betetzen ez direnaren zantzuak ditugu, hizkuntzaren kudeaketan, segurtasunean, azpikontratazioan eta mantenuan besteak beste, eta hortaz, horiek berrikustea eta betearaztea dagokio Udal Gobernuari.

Bestalde, arazo hauek mahai gainean egonik, udan, Udal Gobernuak aparkalekuak kudeatzen dituen Empark enpresarekin akordio berri bat adostu zuen, non eta 7 neurri adosten ziren. Orain arte egon den egoera ikusirik, ezinbestekoa ikusten dugu Udal Gobernuak adostutako neurriak beteko direla ziurtatzea eta jarraipena emango zaiela baieztatzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Udalak Donostiako lurrazpiko aparkalekuak kudeatzeko Empark enpresarekin duen pleguen baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen duen txosten bat egin dezala eta udal taldeekin konpartitu dezala.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

2. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Empark enpresako langileekin bilera bat egitea eta aurreko irailean eskatutako azalpenak ematea.
3. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Emparkekin egin duen akordio berriaren jarraipena egitea, adostutako 7 neurriak betetzen dituela ziurtatzen duen txostena egitea eta udal taldeekin konpartitu dezala..

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia